

## Udal Liburutegiak bere zerbitzuak handituko ditu, asteburuetan eta jaiegunetan ere atek zabalduta

- **Urriaren 19ko asteburutik aurrera sartuko da indarrean zerbitzuen zabaltzea**
- **2022ko aurrekontu partehartzaileen prozesuan herritarrek hautatutako proposamenetako bat izan zen**

**Andoainen, 24-10-14.-** Aurrerantzean bere zerbitzuak handituko ditu Udal Liburutegiak: aukera gehiago izan dute herritarrek bertara gerturatzeko. Izan ere, larunbat, igande eta jaiegunetan ere zabalik egongo da Liburutegia hainbat orduz.

Urriaren 19ko asteburu honetatik aurrera zabalduko ditu atek, goizeko 9:00etatik arratsaldeko 13:00ak arte. Establezimenduak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak egongo dira herritarrentzat eskuragai: liburuen kontsulta eta mailegua, prentsa,...

Eskaera hau 2022ko aurrekontu partehartzaileen harira eraman du aurrera Udalak: hainbat aukeren artean proposamen hau hautatu zuten herritarrek. Hala, asteburu honetatik aurrera errealitate bilakatuko da.